

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA; **OBRAK PRESAZKO LEHIAKETA IREKI BIDEZ KONTRATATZEA**

## **IGERILEKUEN ERAIKUNTZA ATAUNEN**

### **I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

#### **1. KONTRATUAREN GAIA**

Kontratuaren gaia hau da: Igerilekuak eraikitzea Ataunen. Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPA-2002 nomenklaturaren arabera: ..... 4521

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: ..... 45212212-5

#### **2. OBRAK BURUTZEKO EPEA**

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea hau da: BOST HILABETE.

Zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

#### **3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa SEIEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA HAMAZAZPI EURO ETA BOST ZENTMO (647.917,05 €) izango da, BEZ barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Lehiatzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu, Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina lehiatzailearen prezio-proposamenean jasotako beherako portzentajea kenduta.

#### 4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

Hona hemen kontratu hau elkarrekin finantzatuko duten erakundeak eta horietako bakoitzak ekarriko duen diru-kopurua:

Ataungo Udala	347.917,05 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	300.000,00 €

Espedientean diru-kopuru horiek noiz ordainduko diren azaltzen da, bai eta ekarpenak oso-osorik erabil daitezkeela ere.

#### 5. NOLA ORDAINDU

Obra burutuak aldizka ordainduko dira, egiaztagiriak egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek.

#### 6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

#### 7. BERMEAK

Kontratuaren esleipenduna izango denak behin betiko bermea eman beharko du, hartuko dituen konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Kopuru hori esleipeneko zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZ gabe.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamar lan-egunekoa izango da, horretarako egiten zaion errekerimenduaren hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

#### 8. KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratuaren burutzapena, eta hori hamabost eguneko epean izan beharko da, kontratua izenpetu den egunetik kontatzen hasita.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoak eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## 9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## 10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERA KOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

## 11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 220.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Esleipendunak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatuzko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

## 12. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, obrak esleitzailaren esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Bermearen behin betiko epea, esleitutako enpresak eskainitakoa izango da, betiere, ezingo delarik urtebete ( urte 1) baino gutxiago izan, obrak hartzeko akta izenpetzen denetik kontatuz, eta berme hau Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako izango da.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzailaren esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

### 13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

#### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeke.

#### B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

### 14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 220. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

### 15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### 16. ESLEIPENA EGITEKO ERIZPIDEAK

Kontratu honen esleipena presazko jardunbide ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko (garrantzi eta haztapenaren arabera ordenatuta):

1) Proposizio ekonomikoa: gehienezko puntuazioa 60 puntu.

Eskaintzarik ekonomikoenari 60 puntu emango zaizkio. Litzitazioaren oinarria eta eskaintzarik ekonomikoenaren arteko beste eskaintzei honako formula hau aplikatuko zaie:

Eskeintzarik ekonomikoena eta lizitatuzailearen eskeintzaren arteko zatidura, erizpidearengatik banatzen diren gehienezko puntuengatik biderkatuko da.

2) Memoria eta lanerako plangintza: gehienezko puntuazioa 20 puntu.

Baldintza Teknikoen Pleguarekiko sartutako hobekuntzak balioztatuko dira, eskeinitako prezioaren igoerarik gabe.

3) Bermearen epea: gehienezko puntuazioa 20 puntu.

Bermearen behin betiko epea, esleitutako enpresak eskainitakoa izango da, betiere, ezingo delarik urtebete ( urte 1) baino gutxiago izan obrak hartzeko akta izenpetzen denetik kontatuz. Esleitzzaileak urtebeteko berme minimoa eskaini ahal izango du, honek ez duelarik aparteko baloraziorik izango, edo bestetik, epe luzeago bat eskaini ahal izango du honela baloratuko delarik:

1 AUKERA:	Urtebeteko bermea:	0 puntu
2 AUKERA:	Bi urteko bermea:	5 puntu
3 AUKERA:	Hiru urteko bermea:	10 puntu
4 AUKERA:	Lau urteko bermea:	15 puntu
5 AUKERA:	Bost urteko bermea:	20 puntu

Eskaintzak neurritz gaineakoak edo anormalak direla eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak hauek dira: aurkeztutako eskeintza guztien batez bestekoaren %15ren azpitik egotea.

## 17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzekeo debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzekeo eta ebaluatzekeo bideak 18.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzekeo gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

## 18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Administrazio honetako bulegoetan

ORDUAK: 09 : 00etatik – 14 : 00etara, asteleheneretik ostiralera eta 09:00etatik 12 : 00etara larunbatetan.

EPEA: Egun baliodunetan, lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, egutegiko 13 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, eta honako webgunean ere eskuratu ahal izango da: <http://www.ataun.net>.

Baldintza-agiriak eta horien dokumentazio osagarria eskatzen duten eskaintzaileei bidaliko zaizkie, eskaera hori jaso eta sei eguneko epean, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

Eskaintzaileek eskatutako baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, emango da, beti ere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 142.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztu diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organismoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Eskaintzan parte hartzeko proposamenak hiru gutun-azal itxitan aurkeztuko dira, eskaintzaileak izenpetuta eta jakinarazpenak bidaltzeko helbide bat adierazita dutela; gutun-azal bakoitzaren izena eta "ATAUNEN IGERILEKUAK ERAIKITZEA LANEN KONTRATAZIOAN LIZITATZEKO PROPOSAMENA" testua argi idatziko da. Hau izango da gutun-azalen izendapena:

- «A» gutun-azala: Administrazioko Dokumentuak
- «B» gutun-azala: Dokumentazio Teknikoa.
- «C» gutun-azala: Proposamen Ekonomikoa.

Gutun-azal bakoitzean sartutako dokumentuak originalak nahiz fotokopiak izan daitezke, baina bigarren kasu horretan Udalak esleipendun moduan proposatutakoari dokumentu originalak edo kopia kautotuak aurkezteko eska dakiok, behin betiko esleipena gertatu aurretik.

Behean adierazten diren dokumentuak eta aurkeztutako dokumentuen zerrenda ordenatua sartuko dira gutun-azal bakoitzean:

## «A» GUTUN-AZALA

### ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTUAK

Kartazal honetan ondorengo hauek barneratuko dira:

#### a) Enpresaburuaren izaera juridikoa ziurtatzeko dokumentuak.

- NANaren kopia, pertsona fisikoen kasuan.
- Elkartearen osaera-eskrituraren kopia, pertsona juridikoen kasuan.

#### b) Ordezkaritza ziurtatzeko dokumentuak.

- Besteren izenean agertu edo izenpetzen dutenen kasuan, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du notarioak igorritako agiri bidez.
- Eskaintzailea pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, legez eskatzen den kasuetan.
- Modu berean, ordezkaritzarako ahalordea duen pertsonak bere nortasun agiriaren fotokopia ere aurkeztu beharko du.

#### c) Kontratatua izateko debekuetatik salbuetsita dagoenaren ardura-adierazpena; debekuok urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan xedatuta daude.

Adierazpen horretan zehaztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela, baina behin betiko esleipena egin aurretik horiek ziurtatzeko agiriak aurkeztu behar izatea gerta dakiok esleipenaren onuradun izango den enpresaburuari.

#### d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

#### e) Lehiatzaileak ondorengo kategoria, talde eta azpitaldeko obrak kontratatze gaitasuna ematen dion sailkapena duela egiaztatzen duen agiria.

Taldea	Azpitaldea	Maila
C	2	e)
C	4	e)
C	6	e)
C	7	e)

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldetik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokitzuz gero, eskaintzaileari legokiokoen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Saillkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko saillkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, udalak behin behineko esleipendunari jatorrizkoak edo kautotutako kopiak aurkez ditzan eskatu ahal izango dio.

## «B» GUTUN-AZALA

### DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

**a) Esleipenerako irizpideen arabera eskaintza teknikoak balioesteko Kontratazio Mahaiak erabiliko dituen dokumentuak. Dokumentazio honen aurkezpena hautazkoa izango da.**

Memoria teknikoa edo obraren ejekuzio azterketa aurkeztu beharko da, berau nola burutu behar den azalduz eta argudiatuz.

Memorian lanen zailtasun esanguratsuenak aztertuko dira eta hala nola hauen konponbide posibleak, lizitatuak kasu bakoitzean beregain hartzen dituen konpromezuak zehaztuko dira aipatu zailtasunak egoki burutzeko.

Memoriak eta azterketak proiektuan aurreikusitako arazo ezberdinak zehazki eta espresuki kontsideratu beharko dituzte, obraren bideragarritasuna baldintzatu edo honengan eragina izan dezaketen alderdi ezberdinetan sakonduz, eta hala nola eskeinitako lanen programa.

Lizitatuak beren proposamenetan aukerak edo aldaerak proposatu ahal izango dituzte, kontratuaren xedea hobetzeko helburuarekin.

Memoriaz gain LANEN PROGRAMA aurkeztu beharko da, baldin badagokio, epe partzialen proposamenarekin.

Lanen programak, lanen burutze azterketan oinarrituta eta giza baliabideekiko eta bitarteko materialekiko koherentzia, jarduketan sekuentzia eta epe ezberdinak arrazoiz eta dokumentuekin zehaztu beharko ditu.



Programaren garapen teknikak bide kritikoak eta lasaierak agerrarazi beharko ditu, eta hala nola epemuga partzial esanguratsuenak zehaztu, proiektuko lanen kontrol mailakaturako. Gainera kontutan hartu beharko da lanen eta kiroldetako jardueren bateragarritasuna.

Diagramek eta grafikoek prozesu eraikitzailea espazioan eta denboran bistaratzea ahalbidetuko dute eta hauetatik hileko inbertsioak eta metatutakoak ondorioztatzea.

## «C» GUTUN-AZALA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Kartazal honetan ondorengo hauek barneratuko dira:

#### a) Berme, eta proposamen ekonomiko eredia.

Ondorengo ereduaren arabera aurkeztuko da:

« \_\_\_\_\_ jauna/andrea, jakinarazpenak bidaltzeko k/ \_\_\_\_\_, \_\_\_\_ zk., \_\_\_\_\_, helbidea duena eta \_\_\_\_\_ NAN zk. duena, \_\_\_\_\_ IFK zenbakia duen \_\_\_\_\_ Erakundearen ordezkari gisa, bere helbidea ..... duena, P.K. ...., Telefonoa ....., eta NAN edo IFK ( persona juridikoa edo fisikoa izanaren arabera) Ataungo Udalak "Ataunen igerilekuak eraikitzea" obrak lehiaketa ireki bidez kontratatzeko espedientearen jakinaren gainean dago, eta zera aitortzen dut:

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, ..... €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da: .....

Eskeinitako bermea Berariazko Administrazio Baldintzen Pleguko hamaseigarren klausulako \_\_\_\_\_ AUKERari dagokiona izango litzateke.

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

.....(e)n, 2011ko .....aren ....(a).

Eskaintzailearen izenpea,

Izp.: \_\_\_\_\_».

## 19. KONTRATAZIO MAHAIA

Urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriko 10. puntuari zehazten denez, Udaltzako kide bat edo Udaltzaren langile funtzionario bat izango da Kontratazio Mahaiaren buru, eta bertako kide, berriz, hauek izango dira: Idazkaria edo aholkularitza juridikoaren funtzioa betetzen duen organoko titularra, hala badagokio, eta Kontuhartzailea; eta kontratazio-organoak izendatutako Udaltzarentzat lan egiten duten karrerako funtzionarioak edota langileak, edo Udaltzako kideak. Hauek, beti ere, ezingo dira hiru baino gutxiago izan. Udaltzako funtzionario bat izango da Idazkaria.

Kide hauek ditu Kontratazio Mahaiak:

Mahaiburua:

— Alkatea.

Batzordekideak:

— Udaltzako idazkari/kontuhartzailea.

— Proiektuaren arkitekto idazlea.

— Udal ingenierto aholkularia.

— Obratuko zinegotzia.

Idazkaria:

— Udal funtzionario bat izango da Mahaiko Idazkaria.

Kontratazio Mahaiaren bilkuretara bertaratu ahal izango dira Hirigintza eta Obratuko Batzorde Informatzaileko partaideak. Hauek hitza izango dute baina botorik ez.

## 20. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatu egingo du. Horretarako, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den eran jardungo du.

Ildo horretan, lehiatzaileei beren gaitasun eta kaudimenari buruzko argibide eta agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie, eta lehiatzaileek egutegiko bost eguneko epean eman beharko dizkiote, Araudiaren 22. artikuluan xedatuta dagoenez. Mahaiak interesdunei ahoz eskatu behar dizkie argibide eta agiri osagarri horiek, eta gainera eskaera idatzia jarri behar du kontratazio-organoaren iragarki oholean. Era berean, lehiatzaileek aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akatsak agertzen badira, Mahaiak ahoz eta iragarki bidez emango die horren berri lehiatzaileei, eta hiru egun balioduneko epea jarriko die akatsak zuzen ditzaten.

Behin agiriak sailkaturik, eta akats eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik balego, baldintza-agiri honen 18. baldintzan azaltzen diren irizpideak zein enpresak betetzen dituzten zehaztuko du Mahaiak, eta berariaz adieraziko du zein enpresa onartu dituen lehiaketarako, zein baztertu dituen eta zergatik baztertu dituen.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen deneko egunetik kontaktzen hasita laugarren lan egunean, larunbata izan ezean, eguerdiko 12etan, proposamenak irekitzeko ageriko egintza egingo da, Udaletxeko areto batean. Aipatu eguna larunbata balitz, hurrengo lehenengo lan egunean egingo litzateke irekitzea. Egintza honetan aurkeztutako eskaintzen berri emango da eta dokumentazio administratiboaren kalifikazioaren berri baita ere eta aukeraketa prozesuko irizpideetara egokitzen diren enpresak zeintzuk diren zehaztuko dira, bai onartuak direnak bai ez direnak onartzen, azken hauek baztertzeko arrazoiak adieraziz.

Jarraian hobekuntzak balioztatzeko dokumentazio teknikoak duten "B" gutun-azalak irekiko dira eta bere azterketa eta balioztatzerako utziko da. Halaber, "C" gutun-azalen irekitzea egiteko eguna eta ordua finkatuko dira, guztiaren akta jasoz.

"C" gutun-azaleko proposamen ekonomikoak aurreko egintzan erabakitako egun eta orduan irekiko dira, egintza publikoan, eta Administrazio Publikoko Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrek dioenaren arabera egingo da. "C" gutun-azalak ireki aurretik "B" gutun-azaleko dokumentazioaren baliospenaren irakurketa egingo da. Jarraian "C" gutun-azalak ireki eta hauen edukia agerian jarriko da, guztiaren akta jasoz.

Ondoren, txosten teknikoak egin eta jaso eta berriro ere Kontratazio Mahaia elkartu ostean, esleipen proposamena egingo dio kontratazio organuari.

Kontratuaren esleipena eskaintzak ireki eta gehienez ere 15 lan-eguneko epean egin beharko da; erabaki hori eskaintzaileei jakinarazi beharko zaie eta Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da.

Esleipen-proposamenak ez dio proposatzen den lizitatuzaileari Administrazioarekiko inolako eskubiderik sortzen. Dena den, kontratazio-organoak ez badio proposatutako eskaintzaileari kontratua esleitzen, erabaki horren arrazoiak eman beharko ditu.

## 21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Proposamenak ikusirik, espedientea organo eskudunari aurkeztuko zaio, esleipena egin dezan.

Esleipena hilabete bateko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita. SPKLaren 145.3. artikuluan aurreikusten denez, epe hori egutegiko 15 egunetan luzatuko da 136.3. artikulua zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gaineakoak dituzten eskaintzen kasuan.

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoak egin beharko du.

Kasu honetan, eskaintzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio behin-behineko esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio behin-behineko esleipena.

Organu kontratugileak, kontrazazio zerbitzuaren bitartez, ekonomikoki eskeintza abantailatsuena egin duen lizitatuazileari, egutegiko hamar lan eguneko epean honako jarduerak egin ditzan eskatuko dio:

- a) egiaztagiriak aurkez ditzala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu, baita kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.

Aipatutako epean eskatutakoa behar bezala beteko ez balitz, lizitatuazileak bere eskeintza atzera bota duela ulertuko da, eta orduan, eskeintzak zein ordenatan sailkatuta gelditu diren ikusita, hurrengo lizitatuazileari dokumentazio bera epe berean aurkez dezan eskatuko zaio.

Esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lan egunetan egin beharko da. Esleipenean zehaztu eta finkatuko dira kontratuaren behin betiko xedapenak.

SPKLaren 139.2. artikulua araber, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, esleipenak eragindako gastuak ezarriko ditu Administrazioak, entzunaldia egiunez eta behar bezala ziurtatuz.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du. Esleipendunari jakinaraziko zaio, eta honek, jakinarazpena jaso eta egutegiko hamar eguneko epean ondorengoak bete beharko ditu:

- a) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu. Gastu horien zenbatekoa berrehun euro (200 €) izango da, gehienez.
- b) Administrazio honen bulegoetara etorri, proiektuaren zuinketa egiaztatze eta zuinketa-akta izenpetzeko.
- c) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen araber egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrek, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

### 23. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

### 24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Ataun, 2011ko martxoaren 11

=====